AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

6115

AGINDUA, 2011ko azaroaren 25ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Justizia eta Herri Administrazio Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.d) artikuluan agindutakoaren arabera eta Justizia eta Herri Administrazio Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko urriaren 5eko Aginduaren hirugarren oinarrian agindutakoaren arabera (2011ko urriaren 27ko EHAA), hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Antonia Martín Sagredo andrea goi-kargudun baten idazkari izendatzea Justizia eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan (kodea: 520010; dotazioa: 9; maila: C.D.; destino-osagarriaren maila: 18; berariazko osagarria: VI-A).

Bigarrena.– Izendapen horrek 2011ko abenduaren 1etik izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beraren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke agindu eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten den egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 25a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.